

## **BI MILA ETA HOGEIKO EKAINAREN HAMABOSTEAN EGINDAKO KONTU BEREZIAREN BATZORDEAREN IRIZPENA.**

Arrietan 2020ko ekainaren hamabostean, 19:00etan Udalaren Kontu Bereziaren Batzordearen bilkura osatu du udaletxeko Bilkura Aretoan, Aitor Agirre Urkidi Alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Itxaso Otazua Etxebarria  
Jesus Mari Gondra Zubieta  
Ander Etxebarria Olalde  
Gartzen Agirregoitia Abad  
Ana Gonzalez Gil  
Theo Norbert Bodo Reichenberger

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeke eta eztabaidatzeko dagozan aztergaieiei ekin jake.

### **I.- 2019KO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRAREN ALDEKO IRIZPENA.**

2019ko ekitaldiko Kontu Orokorraren dokumentua aztertu ondoren, Kontuen Batzorde Bereziak erabaki du, EAJ/PNV udal-taldeko ordezkarien aldeko botoekin eta eh Bildu udal-taldeko ordezkarien abstentzioarekin, 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorraren irizpenaren aldeko txostena egitea eta jendaurrean jartzeko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Arrietako iragarki-oholetan argitaratzea hamabost egunez. Interesdunek erreklamazioak, eragozpenak edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte, 2019ko Kontu Orokorra behin betiko onartu aurretik.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoanez, Alkate jaunak amaitutzat jo dau bilkura illuntzeko zazpiretan eta hogeita hamarrean. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko.